



HIZKUNTZ PROIEKTUA

2024KO OTSAILA

**Larramendi
Ikastola**

Alkar ekin, mundurako hezi

TEL: 94 674 90 80

idadzkaritza@larramendi-ikastola.net

Madalen Bidea, 20. MUNGIA

www.larramendi-ikastola.eus



AURKIBIDEA

1. IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOINGUISTIKOA	3
2. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK	6
2.1. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA	6
2.2. HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK	6
2.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK	1
2.4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KOKAPENA	1
3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK	2
3.1 HIZKUNTZAREN ETA ELEANIZTASUNAREN IKUSPEGIA	2
3.1.1 Hizkuntzaren ikuspegia	2
3.1.2 Euskararen ardaztutako hezkuntza eleaniztuna	3
3.1.3 Hizkuntzekiko erreferentziazko lorpen mailak	4
3.1.4 Ikastolaren zeregina euskara indarberitzeko prozesuan	6
3.1.5 Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne- hartzaila	6
3.2 HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA IKUSPEGIA	7
3.2.1 Hizkuntza Komunikaziorako kompetentzia	7
3.2.2 Gela barruko eremuaren ekarpena: Hizkuntzak eta Literatura arloa ..	8
3.2.3 Gela barruko eremuaren ekarpena: Hizkuntzen Trataera Integrala	9
3.2.4 Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena	9
3.3 HIZKUNTZEN ERREGISTROEN TRATAERA	10
4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA IRIZPIDEAK	11
5. HIZKUNTZ PLANGINTZA	13
5.2 ESKOLATZE GOIZTIARRA ETA BERANTIARRA	13
5.3 GELA BARRUKO HIZKUNTZAK	14
5.4 GELAZ KANPOKO EREMUEN HIZKUNTZEN BANAKETA	15
5.5. EREMU INSTITUZIONALEAN HIZKUNTZEN BANAKETA	15
6. HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO IBILBIDEAREN URRATSAK	19
6.1 HAUSNARKETA ETA SOZIALIZAZIO-FASEA (1. urratsa)	20
6.2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA (2. urratsa)	21
6.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN IDAZKETA (3. urratsa)	21
6.4. PLAN ESTRATEGIKOA (4. urratsa)	21
6.5. UTEKO PLANA (5. urratsa)	21
6.6. URTEKO MEMORIA (6. urratsa)	21
6.7. PLAN ESTRATEGIKOAREN EBALUAZIOA (azken urratsa)	22
7. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KUDEAKETARAKO EGITURA	23

1. IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA

1967an sortu zen Larramendi Ikastola, Mungiako elizako lokaletan. Ordutik hona urte esanguratsu asko bizi izan ditu. Ondorengo hauek dira garrantzitsuenak:

1969an hiru andereño eta 98 ikasle izan zituen. Aurkako lege eta politikabaldintzei aurre eginik egin zuen aurrera, eta apurka-apurka ikastola handitzen eta proiektua sendotzen joan zen. Tarteka, lokalak aldatuz ibili ziren ikasle, irakasle eta gurasoak.

1978an atera zen lehenbiziko promozioa: 1964an jaiotako 10 ikaslek burutu zuten OHoko 8. maila (1964an eta 1965ean jaiotakoek ezin izan zuten Batxilergoa Larramendi Ikastolan egin). Urte berean Mungiako Llona auzoan abeltzaintza-eremu bat erosteko aukera agertu eta ikastola bertara eramateko prozesua hasi zen.

1979an “Larramendi Ikastola kooperatiba” sortu zen kurtso bakoitzeko talde bakarrarekin (3 urte - 8. maila).

1984an, Batxilergoa ikastolan amaitu zuen lehenbiziko promozioa atera zen (1966an jaiotako ikasleak izan ziren).


1993an Euskal Eskola Publikoaren legearen ondorioz sare kontzertatuaren edo publikoaren erabakia hartu behar izan zenean, tentsio handiko uneak bizi ostean, sare kontzertatuan geratzea erabaki zuen ikastolak.

Ikastolaren historiaren beste mugarri bat 1998an bertan antolatutako Ibilaldia izan zen. “Erdi geugaz” lelopean egin zen, eta orduan lortutako diruarekin altxatu zen eraikin berri bat ikastolaren hazkundeari erantzuteko. Izan ere, hazkunde horrek ekarri zuen ikasleen hirugarren lerroa sendotu beharra (maila bakoitzeko hiru gela antolatzea).

2017an 50 urte bete zituen Ikastolak eta, horrekin batera, ikastolaren bigarren Ibilaldia ospatu zen “Egunero alkarregaz” lelopean.

Gaur egun Larramendi Ikastola 0-18 urte bitarteko hezkuntza komunitatea da, 1013 ikasleek, 660 familiek, 82 irakasleek eta 55 administrazio eta zerbitzu langileek osatzen dutena. Larramendi Ikastolak batez ere Mungiako zein Mungialdeako, Uribe-kostako eta Txorierriko herrietako ikasleak erakartzen ditu. Ikaslegoaren % 60 Mungian bizi da eta % 40 inguruko herrietan: Gamiz-Fika, Gatika, Derio, Zamudio, Larrabetzu, Bakio, Plentzia, Gorniz, Lemoiz, ... Horiez gain, jatorri askotako ikasle etorkinak ere badira, oso ugariak ez badira ere.

Bestalde, Mungiako azken datu soziolinguistikoen arabera, Mungiako biztanleen % 56,95 da euskalduna (EUSTATen datuak, 2021).




Beraz, herri euskalduntzat jotzen da Mungia, eta Eustateko datuek adierazten dutenez, euskararen jakintza gora egiten ari da:

	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Guztira	10.933	11.654	12.516	13.403	14.759	16.192	16.679	17.082
Euskaldunak	6.535	6.834	7.290	7.384	8.254	8.612	9.350	9.729
Ia euskaldun	1.587	1.868	1.926	2.829	3.214	3.943	3.033	3.140
Erdaldunak	2.811	2.952	3.300	3.190	3.291	3.637	4.296	4.213

Hala ere, ezagutzak gora egin arren, erabilera beherakada handia nabaritu izan da azkeneko urteetan. Honen adierazle da 2020. urtean Mungiako 1. Batxilergoko ikasleek egindako kale neurketa:

	2020ko KALE NEURKETA	
	Elkarrizketak	%
EUSKARAZ	56	% 22,50
GAZTELANIAZ	180	% 72,30
BESTE BATZUK	13	% 5,00


Ikastolako gurasoei dagokienez, 2020an egin zitzaizen galdetegiaren arabera, % 43,8k baino ez dute erabiltzen euskara etxeko hizkuntza bezala.



Dena den, ez da datu finkoa. Badirudi etxeko hizkuntza aldatzen doala umeak hazi ahala; izan ere, Haur Hezkuntzan % 49,3k euskara hutsean egiten dute, baina Batxilergoan, ordea, % 23,8k baino ez du erabiltzen.


HAUR HEKUNTZA

1.3. Familia artekoen euskararen erabilera / Uso del euskera en la familia




LEHEN HEZKUNTZA

1.3. Familia artekoen euskararen erabilera / Uso del euskera en la familia



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

1.3. Familia artekoen euskararen erabilera / Uso del euskera en la familia



BATXILERGOA

1.3. Familia artekoen euskararen erabilera / Uso del euskera en la familia



Ikastolako hizkuntza-paisaiari erreparatzen badiogu, hauexek dira komunitateko kideen erabilerari dagokionez 2022an Brankatik, Hezkuntza Sailak eskatutako neurketatik atera ditzakegun datuak:

- Ikasleak % 30
- Gurasoak % 53
- Administrazio eta zerbitzuetan % 82
- Irakasleak %92



2. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

2.1. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Hizkuntzak ez dira pertsonen artean ideia, nahi eta esperientziak trukatzeko bitarteko soilak. Horrez gain, hizkuntzak beraiei loturiko kulturen erakusle eta adierazpen sinbolikoak dira, kultura horien zatiak dira. Beraz, ez dago kultur edukirik gabeko euskararik, eta ondorioz, zaila litzateke Hizkuntz Proiektua definitzea euskal kulturari erreferentziarik egin gabe.

Hizkuntz Proiektua honela definituko genuke: euskararen normalkuntza bideratu ahal izateko, hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu soziala. Era berean, proiektu honen ardura da euskara ohiko hizkuntza bihurtzea edota mantentzea alderdi formal zein ez-formaletan, ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan eta hizkuntza komunitatearen barne harremanetan.

Beste ardura bat ere badu Larramendi Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak, hain zuzen ere, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzea eta haien trataerari koherentzia ematea.

2.2. HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

Hizkuntza Proiektuaren markoa ikastolako komunikazio-eremuen baitan garatu behar da; izan ere, esparru horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira bakoitzean. Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu ikastolako hizkuntzekiko esku-hartze eremuak identifikatzea, horrek aukera emango baitigu hizkuntzen trataera ikuspegi sistemiko batez bideratu ahal izateko, eta esparru eta eragile askotarikoen arteko elkarrenergina eta koherentzia ziurtatzeko.

Honako hau litzateke ikastolaren hizkuntzekiko esku-hartze eremuen sailkapen nagusia:

- **Eremu pedagogikoa:** atal honen barruan biltzen dira hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak, eta horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere.
- **Eremu instituzionala:** atal honen barruan aurkezten diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki.


Honako taula honetan egin da aipaturiko eremuen zehaztapena:

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza

EREMU PEDAGOGIKOA		EREMU INSTITUZIONALA			
GELA BARRUKOA		GELAZ KANPOKOA (jolasaldiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, irteerak eta abar)	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA		KANPO-HARREMANAK <small>(beste ikastetxeak, gizarte-elkarteak, udalak eta herri-erakundeak, hornitzaileak)</small>
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA		IKASTETXEA	FAMILIA	
<p>1 HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hizkuntza arloaren kudeaketa o Helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak <p>2 BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak (hizkuntzen trataera instrumentala). <p>3. PROIEKTU OSAGARRIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Zehar-lerroen hizkuntz trataera o Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak 	<p>1. HIZKUNTZ ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza o Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera <p>2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Komunikazio-egoera esanguratsuak o Taldekatze motak eta irizpideak 	<p>1. HIZKUNTZ ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hezitzaileen hizkuntz erabilera o Hezitzaile-ikasle arteko hizkuntz erabilera o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera <p>2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak <p>3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hizkuntz hobekuntza o Jardueraren metodologia o Hizkuntzekiko jarrerak <p>4. BALIABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera 	<p>1.HIZKUNTZ ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera o Langileen hizkuntz profila o Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak <p>2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak <p>3. BALIABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera o IKT euskarrien hizkuntz trataera. o Ikastolako espazioen hizkuntz trataera 	<p>1. HIZKUNTZ ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Familien hizkuntz tipologia o Familia barruko hizkuntz erabilera o Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak <p>2. GURASOEN PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak <p>3. BALIABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Komunikazio baliabideen hizkuntz trataera 	<p>1. HIZKUNTZ ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Harremanetarako hizkuntz irizpideak. <p>2. ERABILERA ERE-MUEN SUSTAPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Harreman-sareak indartzea o Euskal kultur ekintzak bultzatzea o Euskarazko ekintzak bultzatzea.
<p>4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Hizkuntz hobekuntza o Arloko metodologia eta didaktika o Hizkuntzekiko jarrerak <p>5. BALIABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> o Arlo bakoitzeko ikasmaterialak o Espazioen banaketa eta hizkuntz trataera o Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza 					



Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen deskripzio honek aukera ematen digu ikastolaren egoera linguistikoaren diagnosi osoa ikusteko, eta hizkuntz plangintza orekatua, koordinatua eta koherentea egiteko.

2.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Halako marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete daitezten, Hizkuntz Proiektuak ezaugarri hauek bete beharko ditu:

- **Koherentzia.** Ikastolak bere Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentzia izango du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea eta ikuspegia jasotzen dituenez gero, Hizkuntz Proiektuan hartuko diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu. Hezkuntza Proiektua izango da, beraz, edozein Hizkuntz Proiekturen iturburu.
- **Egokitasuna.** Norberaren testuinguru sozio-ekonomiko, linguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntz heziketaren ibilbidea garatuko du ikastolaren Hizkuntz Proiektuak.
- **Legezketasuna.** Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak aintzat hartuko du EA Eren Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren koherentzia zainduz.
- **Integrala eta parte-hartzailea.** Hizkuntz Proiektuak eragina du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan, eta komunitate hori osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabera gauzatuko dira bertan formulatutako irizpideak. Hauek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte. Gainera, Hizkuntz Proiektuan jasotzen diren printzipioek eta horietatik eratorritako ekimenek hizkuntz-eragile dinamikoak izan behar dute.
- **Dinamikoa eta bizia.** Hastapeneko bertsio batetik abiatuta, ondorengo ikasturteetan egingo diren urteko plangintzen ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko ditu Hizkuntz Proiektuak.

2.4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KOKAPENA

Hizkuntz Proiektuaren zeregina da, beraz, Larramendi Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea.

Halaber, Hizkuntz Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastolako Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza oren tresna nagusia delako.

Aipaturiko hiru proiektu nagusiak, hortaz, etengabeko elkarreaginean ari dira, bata bestea elikatzen, grafiko honetan irudikatzen den moduan:



Horrekin batera, Hizkuntza Proiektuak ikastolako eraketa eta kudeaketa mailako beste hainbat dokumentutan ere eragingo du. Agiri horien artean daude: ikastolaren barne-araudia, urteko plangintza, ikastolaren plan estrategikoa, prestakuntza-plana ...

3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

3.1 HIZKUNTZAREN ETA ELEANIZTASUNAREN IKUSPEGIA


3.1.1 Hizkuntzaren ikuspegia

Europako Erreferentzia Markoan konpetentzien diskurtsoari bete-betean egokitutako ikuspegia datorkigu: gizarte-ekintzara bideratutako ikuspegia. Honela definitzen da markoan:

Lan honetan erabili dugun ikuspegia, oro har, ekintzan oinarritzen da, gizarte-eragileztat hartzen baititu hizkuntza bat ikasten diharduten erabiltzaile eta ikasleak, hau da, egoera jakin batzuetan, ingurune espezifiko eta jarduera-arlo jakin batean, zeregin jakin batzuk (ez soilik hizkuntzarekin lotuak) bete behar dituzten gizarteko kideztat.

Hizketa-ekintzak hizkuntzaren jardueretan gauzatzen diren arren, gizarte-testuinguru zabalago baten osagai dira, eta testuinguru horrek berak ematen die esanahi osoa. "Atazez" mintzo gara, jardueretan gizabanako batek edo gehiagok beren gaitasun espezifikoak emaitza jakin bat lortzeko era estrategikoa erabiltzen dituztela adierazteko. Ekintzara bideratutako ikuspegiak, beraz, ezagutzaren, emozioen eta borondatearen baliabideak ere kontuan hartzen ditu, baita gizabanakoak gizarte-eragile den aldetik aplikatzen dituen gaitasun espezifiko guztiak ere. (Europako Kontseilua, 2005, 29. or.).

Hizkuntzaren ikuspegi horrek marko integralago batean kokatzen du hizkuntzen trataera; izan ere, hizkuntz jarduera gizarte-testuinguru zabalago bati atxikia aztertzen du beste hainbat zereginekin eta konpetentziekin hertsiki loturik.



Hizkuntz ekintza hauek, hain zuzen ere, giza-ekintza guztiak erregulatzen dituzte, eta munduaren eta pertsonen arteko harremanak ere antolatzen dituzte.

Ekintzara bideratutako hizkuntzaren perspektiba ikas-irakaskuntzaren prozesura ekartzeko garaian, bereziki J.P. Bronckart-en ikuspegi sozio-diskurtsiboan (Bronckart, 1997) eta hortik ondorioztatzen den testu-pedagogian dugu oinarria. Haren aburuz, pertsonak hizkuntz ekintzen bidez jarduten dute munduan, testuinguru eta egoera askotan hainbat helburu lortu nahian. Hizkuntz ekintza horiek ahozko zein idatzizko testuen bidez gauzatzen dira. Testuak, beraz, komunikazio-unitate osoak dira, komunikazio-egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik, zentzua eta forma hartzen duten hizkuntz unitateak. Horrenbestez, ikaslea hartuko dugu egoera jakin batean eta helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat. Ekintza horren testuinguruan landuko dugu hizkuntza, bertan sortutako testuaren ezaugarri formalak zein eduki mailakoak landuz.


3.1.2 Euskararen ardaztutako hezkuntza eleaniztuna

Hizkuntz aniztasunari dagokionez, Larramendi ikastolak euskararen ardaztutako eleaniztasunaren aldeko hautua egiten du. Izan ere, egungo gizarte globalizatu honetan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea, hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada.

Euskaldunen etorkizuna eleaniztuna da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan, baina horrekin batera, euskaldunok beste hizkuntza batzuetan komunikatzeko gai izan behar dugu. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezen lortzea.

Beraz, beharrezkoa izango da ikastolako komunitatea osatzen dugunok euskararen normalkuntzarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusizat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dugu. Horrekin batera, gai izan beharko dugu nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko. Azkenik, estatuen arteko mugaren bi aldeetara dauden bi elkarleen kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuko hizkuntza nagusiari buruzko funtsezko ezaguerak izatea.

Bestalde, *“hizkuntzen elkarmenpekotasun-printzipioan”* (Cummins, 1979) oinarrituz, hiztun elebidun edo eleaniztun baten hizkuntza bakoitza ez da bere kabuz garatzen beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Hala, bada hizkuntz gaitasun orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Gaitasun nagusi hori sustatzea funtsezkoa da gaitasun eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Ikuspuntu bera aurki daiteke Europako Erreferentzia Markoak hizkuntzen irakaskuntzaz aritzen denean:



Ikuspegi horretatik, hizkuntza-hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Xedea ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea jatorrizko hitunen ereduari jarraituz, baizik eta helburua oinarrizko hizkuntza bilduma (errepertorio) bat sortzea, bertan hizkuntza gaitasun guztiak agertuko direlarik. (Europako Kontseilua, 2005, 24. or.).

Argi dago gurea bezalako hizkuntza gutxituen eremuan hizkuntzaren garapenean eragiten duten alderdi soziokultural horiek lotuta daudela hizkuntz ordezkapena iraultzearekin eta hizkuntzaren normalizazioa lortzearekin. Egoera horretan, eskolak funtsezko eginkizuna du hizkuntza gutxitua erabiltzeko komunikazio-behar erreala sortzen dituen inguru soziala bermatzeko, bai eskola barruan, bai eskolatik kanpo. Izan ere, hizkuntzak ez dira eskolan bakarrik ikasten; bizitzan zehar aurkitzen ditugun egoera eta zeregin guztiek garatzen dute gure komunikazio-kompetentzia.


Ondorioz, ikastolak hezkuntza-sistema eleaniztunarentzako proposamena landuko du, hizkuntza gutxitua ardatz nagusi dela. Beste era batera esanda, hizkuntzak irakasteko orduan XXI. mendeko euskal biztanleek behar dituzten hizkuntzetan maila egokia lortu nahi da, baina betiere euskararen nagusitasunari eutsiz erabilera-eremu guztietan.

Aipaturiko eleaniztasun-eredu dinamikoak honako hautuak egin ditu, helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

- **Euskara** da eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusia, eta eskola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien irabazi nahi du ikastolak.
- **Gaztelaniaren** kasuan, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, bigarren hizkuntza gisa hartuko du, eta bereziki erabilera formalak indartzeari begira egingo du lana.
- **Ingelesari** dagokionez, hizkuntza horiekiko momentuan duten erabilera testuinguru naturala baliatuko dugu hizkuntza lana bideratzeko, ikasleen benetako komunikazio aukerak eta testuinguruak kontuan hartuz; hau da, eskola eta eskola-ekintzak izango dira gure helduleku nagusia; horrenbestez, Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua, hots, CLIL (Content Language Integrated Learning) deituriko orientabidea hartuko dugu. Hala ere, hizkuntza hori lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotuko dugu; ez ditugu kultura anglofonoaren osagaiak aintzat hartuko.

3.1.3 Hizkuntzekiko erreferentziako lorpen mailak

Ikastolak lortu nahi du bere baitan hezitako “euskaldun eleaniztunek” haien heziketa-prozesuaren bukaeran hizkuntzak maila jakin batean menperatzea. Horretarako, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza sistemak ezartzen dituen mailez gain, Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumean (2006) finkatu ziren hizkuntzekiko kompetentzia-mailak eskuratu beharko dituzte, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:



HIZKUNTZA	LH 6	DBH 4	BATXI 2
Euskara	B1	B2	C1
Gaztelania	B1	B2	C1
Ingelesa	A2	B1	B2

A2: OINARRIZKO ERABILTZAILEA


“Gai da ulertzeko bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki ere bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere”.

B1: ERABILTZAILE INDEPENDIENTEA

“Gai da hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, baita bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko ere”.

B2: ERABILTZAILE INDEPENDIENTEA AURRERATUA

Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoan ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzuneekin mintza daiteke, jariotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten



ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat defendatzeko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez”.

C1: ERABILTZAILA GAITUA

Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietako esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jarotasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.

3.1.4 Ikastolaren zeregina euskara indarberritzeko prozesuan

Euskara hizkuntzaren normalkuntza-prozesu luze eta konplexu batean dago, eta gizarte-eragile guztien partaidetza nahitaezkoa bada ere, ikastola da hizkuntza baten normalizazio prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa.

Erantzukizun hori bere egingo du plangintza integrala eta estrategikoa indarrean jarriz, eta ez ekintza bakartuen bidez. Planaren osagaien artean, ezinbestekoak izango dira: euskararen eta euskarazko irakaskuntza indartu, etorkinak integratzeko berariazko bideak asmatu, euskararen kalitatea zaindu eta eredu ona erakusten ahalegindu, euskararen erabilera elikatu euskara eta euskal kultura ardatz izanik, kulturaren aniztasuneko eta eleaniztasuneko planteamenduak indartu eta hedatu.


Zeregin horiek betetzeko lehen baldintza litzateke euskararen biziraupena hezkuntza-komunitate osoaren arduratzat hartzea. Hartara, ezinbestekoa da eskola-eremu eta gure inguru-hurbileko eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea.

3.1.5 Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea

Gaur egungo aniztasunaren eta mugikortasunaren gizarteak erronka berriak ezartzen dizkio euskararen eta euskal kulturaren indarberritze-prozesuari.

Ikastolan, hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, *kultur integrazio barne-hartzailearen* hautua egin dugu. Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazlea.

Hala, eskola barne-hartzaileak atek irekitzen dizkio hizkuntz eta kultur aniztasunari, ugaritasun erronka hori era baikorrean ikusiz; aukera berri gisa ikusten da gure kultura eta hizkuntza biziberritu daitezen, modu horretan



euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabaziz. Gure ikastola, beraz, eskola barne-hartzailea da, eta ondorioz, euskara eta euskal kulturarentzat abagunea; euskarak biziraun nahi badu, isolamendutik gaindi beste hizkuntzekin eta kulturekin bizi beharko du, mestizaian; izan ere, ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bat bera bakarrik mantentzea eta indarberritzea.

Eskola barne-hartzailearen ikuspegitik, euskarak integratzeko tresna izan behar du, eta ez baztertzaile. Izan ere, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidea izango da, gure kultur aberastasuna ezagutzeko bitartekoa, berdinekin hartu-emanak izateko tresna, gizarte- integratzeko zubia, baita inguru erdaldunetan ere. Horretarako, euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi behar zaie etorri berriei, jarrera baikorra eta atxikimendua beregana ditzaten.

Laburbilduz, kultura eta hizkuntza aniztun ikasleak ikastolan partaide izatearen aldeko gara eta egoera hori gure hezkuntza-eredua gizarte berrira egokitzeko irtenbidearen parte modura ikusi nahi dugu, eta ez konpondu beharreko arazo modura.

3.2 HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA IKUSPEGIA

3.2.1 Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin.

Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeke oinarria da. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso-genero espezifikotan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozkotetasunaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko. Azkenik, hizkuntzaren dimentsio estetikoa aintzat hartzea eta literatura-kulturaz gozatzea ahalbidetzen du.

Gela barruko esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia. Beraz, arlo guztietan nahitaezkoa izango da informazioaren ulermenarekin eta prozesatzearekin nahiz informazioaren egituratzearekin eta komunikatzearekin erlazionatutako gaitasun kognitibo-linguistikoak garaturik edukitzea; baita ikasketa-eremuarekin loturiko informaziozko nahiz argudiozko testu-generoak menderatzea ere.

3.2.2 Gela barruko eremuaren ekarpena: Hizkuntzak eta Literatura arloa

Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumaren oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da kompetenzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

Horretarako, Hizkuntzak eta Literatura arloaren muina izango da ikaslearen kompetentzia komunikatiboaren garapenean esanguratsuak diren egoeren lanketa. Honekin batera, ezinbestekoa da beste alderdi hau: heziketa literarioa integratzea, literatuta komunikazioa eta kultura-ezagutza bere gain hartzen dituen.

- **Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua**

Bestalde, garatu nahi dugun kompetentzia komunikatiboa eleanitza denez, ezinbestekoa da hizkuntzak modu integratuan tratatzea. Horrek honako hau eskatzen du:

- Hizkuntza bakoitzarentzat egoera esanguratsuak definitzea, bizitzako eremu guztiekin erlazionatutakoak direla ziurtatuz.
- Hizkuntza guztientzat komunak diren erabilera eta egoera esanguratsuak definitzea eta modu osagarrian banatzea.
- Ekintza komunikatiboek eskatzen dituzten testu-generoak edota diskurso-sekuentziak definitzea.
- Testu horien ahozko zein idatzizko ulermenerako eta ekoizpenerako ikasleek behar dituzten eduki baliabideak definitzea, eta hizkuntza desberdinen artean modu osagarrian banatzea.

- **Metodologiaren ikuspegia**

Hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifikatu behar denez, hizkuntzen irakaskuntzarako erreferentzia metodologiko hauek hartu behar dira kontuan:

- Egoerek edo egoera-familiek bideratutako ikaskuntza-prozesua da.
- Testua komunikazio-unitatea da.
- Jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatu eta artikulatuko dira.
- Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena landuko da.
- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean baneratuko da.
- Ikasleen artean, eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina egongo da.

- **Ebaluazioaren ikuspegia**

Honako ezaugarriak bete beharko lituzke:

- Hezitzailea: heziketa prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.
- Integrala: konpetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartuko dituena.
- Kontestualizatua: hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertuko duena, eta ez elementu formal abstraktu gisa.
- Testuala: hausnarketa-unitate gisa, giza ekintza horren baitan sorturiko testua izango duena.
- Anitza: osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio-une eta -mota egokiena erabiliko duena.
- Prozesuala: apendizaien erregulatzailer-funtzioan oinarritutakoa.
- Partekatua: elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskainiko diona.

3.2.3 Gela barruko eremuaren ekarpena: Hizkuntzen Trataera Integrala

Ikasleen komunikazio konpetentziaren garapenean Hizkuntza Arloak duen garrantzia ezin uka badaiteke ere, hizkuntza-irakasleak ez dira euskara ardatz duen eleaniztasuna garatzen konprometitutako bakarrak; ikastola osoaren ardura da hizkuntzen trataera integrala.

Hizkuntzazkoak ez diren arloetako irakasleen ardura ere bada ikasleen hizkuntza konpetentzia garatzen laguntzea; izan ere, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia.

Ondorioz, hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek. Horretarako, alderdi hauek hartu beharko ditugu kontuan denok:

1. Hizkuntza-eskakizunak bistaratzea irakasgaiaren berriazko ikaskuntzarako lorpen eta ataza helburuak eratzean.
2. Arloko irakaslearen hizkuntza erabilera.
3. Elkarreragina ikasgelan eta ikasleek hitz egiteko aukerak.
4. Diskurtso akademikoaren trebetasunen, estrategien eta generoen aldarmioak.
5. Materialen hizkuntza-egokitasuna (testuak, bitartekoak, ikas-irakaskuntza materialak).
6. Hizkuntza akademikoaren eta edukien lorpenaren ebaluazioaren alderdi linguistikoak.

3.2.4 Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena

Garrantzi berezia eskaini beharko zaio gelaz kanpoko eremuari, esparru horretan eragiteko arrazoi nagusia eskola-giro osoa euskararen arnagune bihurtzea baita, ikasleek gelatik atera orduko, beraien artean euskaraz egiten jarrai dezaten.

Eskolaz kanpoko eremuaren xede nagusia euskararentzat espazioa irabaztea den momentutik, eta lan horrek etekinak izatea nahi bada, berezko proposamen didaktikoa beharko du.


Horrenbestez, gelaz kanpoko eremu zehatzak hauek dira:

- Ahozko elkarreragina segurtatzea eta bultzatzea.
- Hezitzaile guztiak hizkuntza irakasle izatea.
- Hizkuntz jarrerak eta portaerak lantzea eta adostea.

3.3 HIZKUNTZEN ERREGISTROEN TRATAERA

Ikasleek ikasi behar dute egoerari dagokion erregistro egokian hitz egiten eta idazten. Hain zuzen ere, hizkuntza menderatzea ez da erregistro bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea.

Hiztun bakoitzak ohiko erregistro batzuk izaten ditu eskueran, eta komunikazio-ekintzaren testuinguruaren arabera erregistro bat ala beste erabiltzen du. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako “continuum” bat bezala baizik, irudian ikus daitekeenez:



Irakasleak, hezitzaileak eta gainerako profesionalak dira hizkuntza-erregistro egokiaren sustatzaile eta eredu-emaile, gela barruan zein gelaz kanpo.

Erregistroen garapenari dagokionez, ikastolak egiten duen proposamena ondorengoa da:

1. **0-6 urte bitartean:** Erregistro ez formala, afektiboa eta familiarra erabiltzea.
2. **6-12 urte bitartean:** Igarotzen hasi ez formaletik formalera, hau da, tokiko hizkeratik eredu landura.
3. **12-18 urte bitartean:** Eredu formala, gero eta jasoagoa.



4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA IRIZPIDEAK

Lau esparru nagusi hauetan eragitea aurreikusten da:

- Hizkuntz prestakuntza.
- Metodologia prestakuntza.
- Hizkuntz jarreraren inguruko prestakuntza.
- Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko prestakuntza.

Hizkuntzekin loturiko prestakuntzak aintzat hartu behar ditu ikastolaren eremu guztiak eta hezkuntza-komunitatearen partaide guztiak. Hartara, prestakuntzaren ardatz nagusiak deskribatuko ditugu jarraian:

- **Profesionalak:**

Profesionalena da eremurik zabalena, eremu pedagogikoan gela barruko eta gelaz kanpoko jardueri ez ezik, eremu instituzionalari ere begira jarritz gero. Horregatik, oso garrantzitsua da profesionalen prestakuntza.

Garrantzia horretaz jabeturik, Larramendi ikastolako profesionalentzako prestakuntza bi esparruri begira egituratu nahi da: bata, hiztun gisa bere hizkuntza gaitasunaren hobekuntza; eta bestea, ikasleen aurrean askotariko ekintza komunikatiboetan erabakigarri suertatzen diren eredu-emaile eta diskurtso bideratzaile gisa.

- **Familiak:**

Ikaslearen inguruko harreman-sareetatik familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea hizkuntzaren transmisioan eta eskurapenean.

Euskarekiko aitormen sozial handiagoa dago gure gizartean eta, beraz, gurasoek bere egin dute euskara ondorengoei transmititzearen ardura. Hala eta guztiz ere, asko dago egiteko arlo honetan ere euskararen erabilera areagotzeko.


Eginkizun horietan ikastolak akordioak lortu beharko ditu, AEK euskaltegiarekin nahiz Udalaren laguntzarekin, gurasoen bidelagun izateko: euskara erabiltzera motibatuz, ikastaroak eskainiz ...

- **Ikasleak:**

Ikasleek *komunikatzen ikasi kompetentzia* egokia lortzea da dokumentu honetan jorratzen diren irizpide guztien helburua.

Alabaina, batetik, gizartearen eragin-moldea eta testuinguru soziolinguistikoa zein diren ikusita, eta bestetik, ikastolen eguneroko praktikek erakusten digutenari erreparatuz gero, ezin uka bestelako ekintzabide osagarriak ere beharrezko direnik.

Adibidez:

- 
- Hizkuntz behar berezien kasuan. Bereziki eskolatzeko berantiarren ondorioz hizkuntz gaitasuna indartzearen lagungarri suerta daitezkeen ekintzak (HIPI laguntza).
 - Euskararen erabilera eta ukipen-orduak gehitzearen. Gelako orduetako kanpo, komunikazioarekin zuzenean loturiko ekintza bereziak, ikasleek euskararekin ukipen-ordu gehiago izan ditzaten. (Euskara Taldea, jolastorduek, bazkalordua, Eskolaz kanpoko ekintzak...).

5. HIZKUNTZ PLANGINTZA

5.1. HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN

Larramendi Ikastolak egina duen plangintzaren arabera, hizkuntza bakoitzak ikastola barruan izan beharko dituen erabilera-eremua eta funtzioa honako hauek dira:

EREMUAK		HIZKUNTZAK		
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA
PEDAGOGIKOA	GELA BARRUKOA	X	X	X
	GELAZ KANPOKOA	X		
INSTITUZIONALA	ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA	X	X	
	KANPO HARREMANAK	X	X	X

Larramendi Ikastolaren helburua kalitatezko hezkuntza euskalduna denez gero, Euskara da ikastolako hizkuntza nagusia. Hizkuntza nagusi modura lehenesten da ikastola garelako, gure hizkuntza delako, euskaran ardaztutako eleaniztasunaren hautua egiten dugulako eta euskaraz bizi nahi dugulako.

Gaztelaniak gela barruko esparrua hartzen du nagusiki, eta beraz, gela barruko interakziorako dagokion hizkuntza izango da. Horretaz gain, gaztelaniak eremu instituzionalean ere presentzia badu, eta eraketa eta barne-komunikazioa nahiz kanpo-harremanak gaztelaniaz izango dira euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean.

Ingelesak gela barruko esparrua hartzen du, 2 urtetik 18 urte bitarteko ikasmailetan, eta irakasleen eta ikasleen harremanak ingelesez izango dira.

5.2 ESKOLATZE GOIZTIARRA ETA BERANTIARRA

- **HH etapa:**

Azken urte hauetan hizkuntza jatorri desberdineko ikasleak Murgiltze Plana jarraituz elkartzen dira gela arruntetan. Erdaldunen hizkuntza beharrei erantzuteko, metodologia irizpide eta baliabide didaktikoak gela barneko trataeran eskaintzen dira ikastolan.

Murgiltze prozesu honetan progresiboki jokaten da. Modu honetan, ikaslearen adina eta behar afektibo-emozionalak kontuan harturik, egokitze prozesuan bakoitzaren beharren arabera jokaten da. Progresiboki, tutorearen zein mailako irakaslearen erabilera handitzen joaten da ikasturte bukaeran euskara hutsean mintzatzera pasatuz. Normalean, HH-ko etapa bukaerarako ikasleek euskarazko ezagutza eta erabilera egokia lortzen dute. Beraz, orain arte, HHn ez da errefortzu linguistikoko saiorkin egin.

- **LH eta DBH etapak:**

Talde euskaldunetan murgiltzen dira hizkuntza jatorri erdalduneko ikasleak. Eskolatzeko hasierako egunetan, eta kasuan kasu, irakasleak ikaslearen beharren baitan jokatu du; gero, poliki-poliki, euskararen erabilera handitzen joaten da.

Ikaslearen egoerak horrela eskatzen duenean, hizkuntza indartzeko saioak eskaintzen dira euskara arloan (HIPI). Errefortzu saio horietan hizkuntza indartzeko irakaslea arduratzen da, eta batez besteko, astean 3 ordu eskaintzen ditu. Normalean, integrazio prozesu horretan ikasleak euskara eta euskal kulturaren murgiltzen badira ere, kontuan hartzen da ikaslearen jatorrizko kultura eta, ahal den neurrian, kultura horretara hurbiltzeko saiakera egiten da.

- **Batxilergo etapa:**

Etapa honetan ez dira jasotzen eskolatzeko berantiarak.

5.3 GELA BARRUKO HIZKUNTZAK

Gela barruko eremuari dagokionez, ondorengo taulan azaltzen da Larramendi Ikastolak hizkuntza bakoitzari egiten zaion ordu eskaintza eta hizkuntza bakoitzaren ikaskuntzarako hasierako adina.

MAILA	ADINA	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	INGELESEZ
HAUR HEZKUNTZA 1. zikloa	0-1	Dena		
	1-2	Dena		
	2-3	Dena		0.5
HAUR HEZKUNTZA 2. zikloa	3-4	24		1
	4-5	23		2
	5-6	23		2
LEHEN HEZKUNTZA	6-7	23		2
	7-8	23		2
	8-9	20	2	3
	9-10	20	2	3
	10-11	20	2	3
DBH	11-12	20	2	3
	12-13	24	3	3
	13-14	24	3	3
	14-15	21	3	6 (3 Social Science)
BATXILERGOA	15-16	21	3	6 (3 Social Science)
	16-17	28	3	3
	17-18	27	3	3

5.4 GELAZ KANPOKO EREMUEN HIZKUNTZEN BANAKETA

GELAZ KANPOKOA	HIZKUNTZAK			
	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELES	BESTE
JOLASALDIK	X			
JANTOKIA	X			
GARRAIOA	X			
SARRERAK- IRTEERAK GURASOEKIN	X	X	X	X
IRTEERAK, EGONALDIK, KANPALKIAK...	X		X	
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	X		X	

Gelaz kanpoko eremuan hizkuntza nagusia euskara da. Esparru ez-curricularrak euskararen erabileran garrantzi izugarria du eta ikasleek euskara ikasteaz gain, erabiltzea nahi bada, esparru honetan euskarak izan behar du hizkuntza nagusia.

Horrexegatik, ikasleei euskara erabiltzeko ahalik eta aukera gehien eskaintzen zaizkie: jolasaldietan euskara sustatzeko jarduerak antolatuko dira eta ikastolak antolatutako eskolaz kanpoko ekintza guztiak euskaraz izango dira.

Bestalde, jantoki nahiz garraioetako begiraleen eta ikasleen arteko harreman-hizkuntza euskara izan dadin bultzatuko da. Bereziki, komunikazio egoera informalak izan ohi dira eta lagunarteko hizkera nagusituko da.

Sarrera-irteeretan gurasoak euskaraz aritzen dira nagusiki, baina gaztelaniaz aritzeko joera ere badu zenbaitek. Horregatik, gurasoen euskararen erabileran eragiteko erabilera joerak behatu eta kanpainak egitea proposatuko da.

Eskolaz kanpoko ekintzak nahiz irteerak, egonaldiak edota kanpaldiak euskararen erabilera sustatzeko izateaz gain, kasu batzuetan ingelesaren erabilera indartzeko ere erabiliko dira.

5.5. EREMU INSTITUZIONALEAN HIZKUNTZEN BANAKETA

Larramendi ikastolak hizkuntzen erabilerari dagokionez, ondorengo erabakiak hartu ditu eremu instituzionalean:

EREMU INSTITUZIONALA		HIZKUNTZAK			
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	BESTE
ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA	Gobernu, administrazio eta funtzionamendu organoen hizkuntza.	X	X		
	Langileen hizkuntz profila.	X	X	X	
	Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak.	X			
	Langileen hizkuntz prestakuntza.	X	X	X	
	Ekonomia eta administrazio dokumentazioaren hizkuntz trataera.	X			
	IKT euskarrien hizkuntz trataera.	X			
	Ikastolako espazioen hizkuntz trataera.	X			
FAMILIA	Familia barruko hizkuntza.	X	X	X	X
	Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak.	X	X	x	X
	Gurasoen hizkuntz prestakuntza.	X			
KANPO HARREMANAK	Beste ikastetxeekiko harremanak.	X	X		
	Gizarte elkarteekiko harremanak.	X	X		
	Udal eta herri erakundeekiko harremanak.	X	X		
	Hornitzaileekiko harremanak.	X	X		

5.5.1. Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntza erabilera

- **Batzar Nagusia.** Batzar Nagusietan idatzizko informazioa aldez aurretik helaraziko zaie bazkideei euskeraz eta gaztelaniaz. Asanblada euskeraz egingo da beti ere aurkezleak euskeraz hitz egiten badu eta aldi bereko itzulzaileen bidez bermatuko da gaztelaniazko azalpena edo euskerazkoa. Galdetzen den hizkuntzan erantzungo da.
- **Kontseilu Errektorea.** Ikastolako Kontseilu Errektoreko bilerak euskaraz izango dira partaide guztiak euskaldunak badira.
- **Zaintza batzordea.** Ikastolako Zaintza Batzordeko bilerak euskaraz izango dira partaide guztiak euskaldunak badira.
- **Eskola Kontseilua.** Ikastolako Eskola Kontseiluko bilerak euskaraz izango dira partaide guztiak euskaldunak badira.
- **Gelako guraso ordezkarien bilera.** Ikastolako Guraso ordezkarien bilerak euskaraz izango dira partaide guztiak euskaldunak badira.
- **Ikasleen kontsiluko bilerak.** Euskara hutsean izango dira.
- **Zuzendaritza.** Euskara hutsean izango dira.
- **Talde pedagogikoa.** Euskara hutsean izango dira.

- **Irakasleen arteko batzarrak.** Euskara hutsean izango dira.
- **Ikasleen arteko batzarrak.** Euskara hutsean izango dira.

5.5.2. Hizkuntzaren trataera komunikazioan

Ikastolak euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko sortu baziren, gure ikastolak, gaur egun helburu hauekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du.

Aldi berean, gure ikastola beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia dago, beraingandik eta beraiekin aberastuz.

Ikastolak euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko, Larramendi Ikastolaren funtzionamendurako honako neurriak proposatzen ditugu:

1. Ikastolaz kanpoko komunikazioa.

Euskal Herritik heltzen diren dokumentuak ez badaude euskaraz idatzita, Ikastolak dagokion igorleari eskatuko dio euskaraz bidal dezan.

2. Ikastola barruko komunikazioa.

2.1. Ikaslea irakasleekin komunikazioa.

-Ikasleak beti zuzenduko zaio irakasleari euskeraz. Salbuespen bakarra atzerritar berriak.

-Ikasle bat gazteleraz zuzentzen zaionean irakasle bati, honek arreta deituko dio eta mesedez eskatuko dio euskeraz egin diezaiola.

-Irakasleak baloratu beharko du ikasleek euskararekiko duten jarrera eta erabilpena.

2.2. Guraso edo ikaslearen arduradunekin komunikazio idatzia.

a) Ikastolatik bidaltzen diren zirkular guztiak euskaraz eta erdaraz egongo dira. (Euskara goian edo ezkerrean).

b) Gurasoen eskuetan egongo da aurretik erabakitzea zein hizkuntzatan nahi duten jaso zirkularren boletina.

c) Tutoreak, ikaslearen guraso edo arduradunekin komunikatu nahi denean, ez badaki etxeko hizkuntza zein den euskaraz eta erdaraz idatziko du. Baldin badaki, gurasoen etxeko hizkuntzan komunikatuko da. Hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egingo dira beti.

2.3. Guraso edo ikaslearen arduradunekin ahozko komunikazioa.

- a) Familia-hizkuntza euskara denean, euskaraz egingo da bilera.
- b) Nahiz eta familia-hizkuntza erdarazkoa izan, hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egingo dira.

2.4. Guraso eta ikasleen arduradunekin ikasturte hasierako bilerak.

Ahozko aurkezpena euskeraz eta aurkezpen digitala gaztelaniaz egingo da. Gelako bilera horietan, gurasoek galderak euskaraz eginez gero, tutoreak itzuli egingo lituzke, bai galderak, baita erantzunak ere.

2.5. Ikastolako gainontzeko bileretan.

BILERA MOTA	HIZKUNTZA IRIZPIDEAK
Orientazio bilerak	Bilerak euskeraz izango dira beti ere parte hartzaile guztiak euskaldunak badira. Dokumentazioa bi hizkuntzetan.
Guraso eskolak	Hizlariaren egokitasuna kontuan hartuko da, hala ere, lehenesten da euskalduna izatea.
Eskolaz kanpoko jardueretarako bilerak	Bilerak euskeraz izango dira beti ere parte hartzaileak euskaldunak badira. Dokumentazioa bi hizkuntzetan.

2.6. Ikastolako jaialdiak: Ikastola eguna, Batxiko agurra...

- Euskeraz egingo dira aurkezpenak.
- Gurasoak ohartu beharko dira euskeraren presentzia derrigorrezkoa dela, salmenta karteletan, bazkariko menua...

2.7. Ikastolako txokoa.

Salmenta kartelak euskeraz egongo dira eta bermatuko da euskeraren presentzia, horretarako ikasleen presentzia ezinbestekoa da.



5.5.3. Langileen hizkuntz profila

Larramendi ikastolako irakasleei nahiz bestelako langileei ondorengo hizkuntza profila eskatuko zaie (*Larramendi ikastolako langileak kontratatzeke protokoloa*):

- **Irakasle finkoak**

Ezinbestean izan beharko du Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen C1 maila euskaraz. Era berean, hori ziurtatzeko ahozko nahiz idatzizko probak egingo dira eta dagokion balorazioa eman. Irakasle lanpostu guztietarako B2 edo baliokidea ingelesean. Salbuespenak atzerriko hizkuntza irakasleak izango dira, hauei C1 eskatuko baitzaie dagokion hizkuntzan.

- **Irakasle ez diren langile finkoak: teknikari, administrazio eta langile kualifikatuak.**


Ezinbestean izan beharko du Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen C1 maila euskaraz. Era berean, hori ziurtatzeko ahozko nahiz idatzizko probak egingo dira eta dagokion balorazioa eman.

- **Gainontzeko langileak.**

-Jantokiko langileak ezinbestean izan beharko du Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen B1 maila euskaraz
-Autobusetako begiraleei ahozko euskara ezagutzea bakarrik eskatuko zaie eta hizkuntza honetan alfabetatua egotea ere baloratuko da. Era berean, hori ziurtatzeko ahozko nahiz idatzizko probak egingo dira eta dagokion balorazioa eman.

6. HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO IBILBIDEAREN URRATSAK


Larramendi ikastolaren Hizkuntza Proiektua bizirik eta etengabeko eraldaketan dagoen egitasmoa denez, luzera begira diseinatutako plangintza behar du. Hauxe da proposatzen den plangintza:



6.1 HAUSNARKETA ETA SOZIALIZAZIO-FASEA (1. urratsa)

Lehen urrats horren helburuak izan dira Hizkuntz Proiektuaren beharra partekatzea eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostea eta onartzea. Hausnarketa horretan Hizkuntz Proiektua abian jartzean, esparru hauetan duen eragina nabarmendu behar da, besteak beste:

- Hizkuntza arloaren xedea, ardatz metodologikoa, hizkuntzen bateratzea, erabiltzen diren ikasmaterialak, helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen arteko osagarritasuna.
- Irakasle guztiak hizkuntz irakasle izan beharraren ildotik, beste arloetako hizkuntz beharren azterketa eta erabiltzen diren ikasmaterialak premia horiekiko egokiak diren hausnartzea.
- Ikasleen gaitasun komunikatiboa garatu ahal izateko gela barruko eta gelaz kanpoko elkarrekintza berrikustea eta hura aberasteko estrategiak bideratzea.
- Irakasleen prestakuntza: metodologia, hizkuntz hobekuntza eta hizkuntzekiko jarrera-ikastaroak.
- Ikastolako hizkuntz politika eta plangintza (gela barruan, gelatik kanpo eta eremu instituzionalean), hala nola, gelaz kanpoko jardueren hizkuntza



(eredua, jarrera, prestakuntza ...), ikastolako eraketa eta barne-komunikazioan erabilitako hizkuntza, kanpo-harremanetarako erabilitako hizkuntza.

Lehen urrats hau Hizkuntz Proiektuaren beharra hezkuntza eragile guztiekin partekatzea da, zuzendaritzaren gidaritzapean.

6.2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA (2. urratsa)

Edozein plangintza diseinatu aurretik, funtsezkoa da errealitatea ahalik eta ondoen behatzea. Larramendi ikastolan hizkuntzekiko esku-hartze eremu guztietan (eremu pedagogikoan eta instituzionalean), eta hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostia egin da (BRANKA, Urrats Euskaltegiko diagnostia ikasleen B1 eta B2 mailak, familien hizkuntzaren ezagutza eta erabileraren neurketa...).

6.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN IDAZKETA (3. urratsa)

Pauso honen azken emaitza Larramendi Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idaztea da. Dokumentu dinamiko eta bizia izan nahi du Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak; hortaz, kontuan hartu behar da bertsio hau hastapenekoa dela eta hurrengo ikasturteetan egingo diren ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko dituela.

6.4. PLAN ESTRATEGIKOA (4. urratsa)

Plan estrategikoa ikastolak lau urterako bere beharrei erantzuteko garatu duen gestio-plana da. Zaila denez diagnosian identifikatutako behar guztiei aldi berean erantzun egokia ematea, Larramendik dituen beharren artean lehentasunak finkatu ditu. Gero, lehentasun estrategiko horiei aurre egin ahal izateko, hizkuntzen garapenean eta bereziki euskararen garapenean eta normalkuntzan gehien eragin dezaketen estrategiak definitu ditu eta horiek aurrera eramateko plan zehatza eratu du.

6.5. UTEKO PLANA (5. urratsa)

Lau urterako aurreikusitako plan estrategikotik urtebeterako hustuketa eginez osatuko dira urteko planak. Horien bitartez, progresiboki erantzungo litzaeike ikastolak antzeman dituen beharrei.

6.6. URTEKO MEMORIA (6. urratsa)

Urteko planaren ebaluazio-prozesua da. Plangintza-fitxaren jarraipena egiten da urrats honetan. Urteko helburuak hiruhilean behin ebaluatuko dira eta urtean zehar lortutakoa balioetsi. Ikasturteko planari egindako egokitzapenak agertuko dira dokumentu honetan.



6.7. PLAN ESTRATEGIKOAREN EBALUAZIOA (azken urratsa)

Lau urteko epealdiaren amaieran plan estrategikoa ebaluatuko da. Horretarako, lau urteetan egindako urteko memoriak eta plan estrategikoaren ebaluazio-adierazleak eskuratu, eta lau urte horietako helburuen lorpen-maila aztertu beharko da.

Horren ondoren, hasierako diagnosian identifikatutako beharrak eta lehentasunak berrikusi eta, agian, hainbat eremuren diagnosia (hots, 2. urratsa) berregin beharko da.

Azterketaren ostean, lehentasunak egokitu edo erabat berrituko dira; ibilbide ziklikoa berriro abian jarriko da, plan estrategiko berria idatziz.

7. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KUDEAKETARAKO EGITURA

Larramendi ikastolako Hizkuntz Proiektuaren sorkuntzak, garapenak eta balioespenak, ikastolan egun dauden gobernu- nahiz funtzionamendu-organo guztien inplikazio eta elkarlan sendoaz gain, antolaketa egonkorra du: Hizkuntza Proiektua Taldea, Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi taldea. Ondorengo irudian Hizkuntz Proiektuaren kudeaketak beharrezkoa duen egitura egonkorra ikus daiteke berdez, eta zuriz, berriz, hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzearen, Hizkuntz Proiektuaren lankidetzan aritzen diren eremuak.



Hauexek izango dira bakoitzaren egitekoak:

Ikastolako gobernu-organoei dagozkien zereginak

Gobernu-organoek (Kontseilu Errektorea, Ikastolaren Batzar Nagusia, Zaintza Batzordea) ikastolako ildo nagusiak finkatzen direla eta haiek gauzatzen direla ziurtatu behar dute. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko zeregin nagusiak honakoak lirateke:

- Hizkuntz Proiektuaren beharra aztertu eta haren sorkuntza onetsi.
- Hizkuntz Proiektua garatu ahal izateko diru-baliabideak aurrekontuetan onetsi.
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa, urteko planak eta memoriak balioetsi eta onetsi.

Zuzendaritzari dagozkion zereginak

Zuzendaritzak gobernu-organoetan hartutako erabakiak bideratzearen eta gauzatzearen ardura du. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko honakoak lirateke haien zeregin nagusiak:

- Hizkuntz Proiektua lantzearen eta gauzatzearen beharra aztertu eta hezkuntza-komunitatearekin adostu.
- Hizkuntz Proiektua Taldearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu eta abar.
- Euskaraz Bizi batzordearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu eta abar.
- Ikastolarako proposatzen den Hizkuntz Proiektua aztertu eta egokia izanez gero oniritzia eman.
- Ikastolako ohiko barne-funtzionamendua bideratzen duten erreferente nagusietan (curriculum proiektua, barne-araudia, urteko plana, aurrekontuak...) Hizkuntz Proiektuarekiko isla ziurtatu.
- Hizkuntz Proiektua Taldeak proposatutako hizkuntzaren prestakuntza-plana aztertu eta ikastolako prestakuntza-planean txertatu.
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa eta urteko plangintzak aztertu, onespena landu, eta ikastolako gestio-planean eta urteko plangintzan txertatu.
- Urteko Plangintzaren jarraipena egin eta urteko memorien balioespenean parte hartu.
- Plan Estrategikoaren jarraipena egin eta bere memoriaren balioespenean parte hartu.

Hizkuntz Proiektua Taldearen zereginak

Hizkuntza Proiektua Taldearen zereginak hauexek izango lirateke:

- Ikastolaren gela barruko eta gelaz kanpoko eremuetan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntzaren eta erabileraren arteko koherentzia eta kohesioa bermatzea; bereziki, komunikatzen ikasi konpetentziaren garapena ziurtatzeko eta hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzeko.
- Euskararen normalizazioan eta eleaniztasunean eragile izatea.
- Ikastolako hizkuntz egoeraren diagnostika bideratzea.
- Ikastolak hizkuntzekiko dituen beharrei eta lehentasunei erantzuteko plan estrategikoa idaztea, zuzendaritzari proposatzea eta zuzendaritzarekin batera plan estrategikoaren balioespena egitea.

- Ikastolaren Hizkuntz Proiektua idaztea eta eguneratzea, betiere Ikastolaren Hezkuntza Proiektuarekiko eta Curriculum Proiektuarekiko koherentzia zainduz.
- Hezkuntza-komunitate osoari antzemandako hizkuntz beharrei erantzute aldera, hizkuntzaren prestakuntza-plana diseinatu eta zuzendaritzari proposatu. Hizkuntz prestakuntza horrek bere baitan bilduko ditu hizkuntzen metodologia, didaktika eta hobekuntza ekintzak, bai eta hizkuntzekiko jarreraren ingurukoak ere.
- Hizkuntz Proiektuaren urteko plangintza proposatzeaz eta baloratzeaz gain, hiru hilerik behin plangintza horren jarraipena egitea.
- Azpi-taldearen proposamenak (Hizkuntz Departamentu Bateratuarenak, Euskaraz Bizi Taldearenak nahiz hizkuntzaren trataerarekin loturiko beste edozein talderenak) aztertzea eta horien gaineko erabakiak hartzea edo proposatzea.
- Hizkuntz Proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskatzea.

Zeregin horiek bete ahal izateko, Hizkuntz Proiektua Taldearen eguneroko jardunean honako puntuak aintzat hartu beharko dira:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte.
- Erabakiak adostasunez hartuko dira eta, zuzendaritzaren onespenerarekin, erabaki horiek lotesleak izango dira.


Hizkuntz Proiektuko dinamizatzaile orokorraren zereginak

Dinamizatzaile orokorraren zeregina Hizkuntz Proiektua garatzeko ekimenak eta horien arduradunak koordinatzea izango denez, komeni da dinamizatzaile orokorrak eskumena izatea erabakiak hartzeko eta betearazteko. Horretaz gain, dinamizatzaile orokorrak honako ezaugarriak izan beharko ditu:

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ezagutza izatea.
- Hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarekin eta erabilerarekin zerikusia duten esparruen oinarritzko ezagutza izatea.
- Prestakuntzarako grina izatea.
- Ekimen handiko pertsona izatea.
 - Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea.
- Komunikaziorako trebea izatea.
- Taldeak dinamizatze gaitasuna izatea.
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea.

Gela barruko eremuaren dinamizatzailearen zereginak

Eremu honen dinamizatzailearen zeregina Hizkuntz Proiektuaren garapenak curriculumaren eremuan beharrezkoak dituen ekintzak bideratzea eta



koordinatzea izango denez, dinamizatzaile horrek honako ezaugarriak bete ditzan komeni da:

- Konpetentzietan oinarritutako curriculum-lanetan eta metodologietan eskarmentua izatea, bereziki hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan.
- Ekimen handiko pertsona izatea.
- Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea.
- Taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea.
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea.

Euskaraz Biziko dinamizatzailearen zereginak

Euskaraz Biziko dinamizatzailearen zereginak Euskaraz Bizi Taldea gidatzea eta koordinatzea izango dira. Talde horren egitekoa Hizkuntz Proiektuaren garapenak gelaz kanpoko eremuan nahiz eremu instituzionalean beharrezkoak dituen ekintzak bideratzea izango denez, Euskaraz Biziko dinamizatzaileak honako ezaugarriak bete ditzan komeni da:

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ezagutza izatea.
- Euskararen normalkuntzan inplikaturata egotea.
- Prestakuntzarako grina izatea.
- Ekimen handiko pertsona izatea.
- Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea.
- Komunikaziorako trebea izatea.
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea.
- Ikasleekin harremanetarako erraztasuna izatea.

Euskaraz Bizi Taldearen osaketa eta zereginak

Hizkuntzaren erabilera bultzatzeko behar diren ekintzak bideratuko ditu Euskaraz Bizi Taldeak. Hartara, taldeko kideek honakoak izan beharko lukete:

- Euskaraz Biziko dinamizatzaile orokorra.
- Etapetako Euskaraz Biziko ordezkariak.

Euskaraz Bizi Taldearen zeregin nagusia euskararen normalizazioan eragitea denez, betiere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean, honako hauek bideratu beharko ditu:

- Urteko plangintza definitzea, jarraitzea eta baloratzea, beti ere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean.
- Behar izanez gero, gela barrurako jarduerak proposatzea eta horien jarraipena egitea.
- Etapetako bileretan, proposamenen eta egindako lanaren berri ematea.

Zeregin horiek bete ahal izateko, eguneroko jardunean honako puntuak hartu beharko lirateke aintzat:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte.
- Beharraren arabera, gela barruko eremuaren dinamizatailearekin bilduko dira.

Hizkuntz Departamentu Bateratuaren osaketa eta zereginak

Hizkuntz Departamentu Bateratuaren osaketari dagokionez, honakoak lirateke departamentu horren kideak:

- Gela barruko eremuaren dinamizatailea.
- Etapa guztietako hizkuntz irakasleak edo ordezkariak.

Gela barruko eremuaren dinamizatailearen gidaritzapean, Hizkuntz Departamentu Bateratuaren ardura izango da Hizkuntzen Curriculum Bateratua gauzatzea; beraz, betiere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean, honakoak izango dira Hizkuntz Departamentu Bateratuaren zereginak:

- Hizkuntz Proiektuan hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarako adostutako ikuspegi metodologikoa garatzea.
- Hizkuntzen curriculum bateratua (helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta abar) garatzea eta eragileekin lantzea.
- Erabakitakoa kontuan hartuta, askotariko baliabideak (ikasmaterialak eta abar) hautatzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari proposatzea.
- Programazioen arteko koordinazioa eta osagarritasuna ziurtatzea.
- Arloko metodologia lantzeko nahiz irakasleen hizkuntz maila hobetzeko prestakuntza beharrak definitzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari aurkeztea.
- Beste arloetako departamentuekin koordinatzea, arlo horien hizkuntz beharrei erantzuteko orientabideak emateko.
- Etapako bileretan, egindako lanaren berri ematea.

Zeregin horiek bete ahal izateko, eguneroko jardunean aintzat hartu beharko lirateke honako puntu hauek:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte.
- Egin beharreko lanaren arabera lan-taldeak antolatu beharko dira: etapa guztiak batera, etapaka, hizkuntzaka, mailaka....

Euskaraz bizi guraso batzordearen zereginak

- Gurasoak euskeraren sustapenean inplikatu.
- Orokorrean, Ikastolako kide guztien euskeraren erabilera areagotzen lagundu.